

KANALAK

Gure produktua gure bezeroengana iristeko, hainbat kanal-motak erabiliko genituzke. Ez dugu denda fisikorik izango, baina negozio ezberdinekin elkarlanean arituko ginateke gure produktuak modu fisikoan saldu ahal izateko.

Hasteko, komunikazio-kanalari dagokionez, webgune online bat izango genuke, non gure bezeroek haien ile-lehorgailua eskuratu ahal izango dute. Horrez gain, iruzkin-postontzi bat ere izango genuke, produktuari buruzko iritzia eta aipamenak uzteko. Horrela, bere alde onak eta txarrak ezagutuko genituzke. Beraz, zer gauza aldatu beharko liratekeen eta zeintzuk ez jakingo genuke. Gainera, ikus-entzunezko baliabide gisa, iragarkiak erabiliko genituzke telebistan, irratan... edo sare sozialetan. Horrela, posible izango da gure burua ezagutaraztea eta jendeak gure produktua ezagutzea.

Bestalde, banaketa-kanalak daude. Kasu honetan, pakete-enpresak erabiliko genituzke gure produktua webgunean eskatzen duten bezeroei banatzeko.

Bukatzeko, salmenta kanalak ditugu. Kasu horretan, hiru bitarteko erabiliko genituzke: saltoki handiak, onlineko salmentarako plataformak eta txikizkako merkataritza. Saltoki handiekin (Media Markt, adibidez), elkarren arteko hitzarmenak egingo genituzke, gure produktua sal dezaten, eta, gainera, beren dendetan erakutsiko genuke, jendeak ikusi eta nola funtzionatzen duen jakiteko. Onlineko salmentako plataformei dagokionez, gure webgunean gain, Amazon ere erabiliko genuke. Kasu horretan, kanpoko saltzaile gisa egongo ginateke. Amaitzeko, txikizkako merkataritzari dagokionez, gure produktua erabil dezaketen lokalak (ile-apaindegiak, adibidez) ditugu, eta, gainera, erakusgai jarriko genuke, bezeroek erosi ahal izan dezaten.

Azkenik, kanalek 5 fase dituzte:

- Pertzepzioa: Irudi inklusiboa eta ingurumenarekin konprometitua emango genuke.
- Ebaluazioa: Produktua negozio handietan eta txikizkako merkataritza ikusgai dagoenez, bezeroek funtzionamendua ikusi ahal izango dute.
- Erosketa: Lehen aipatu dugun bezala, saltoki handiak, onlineko salmentarako plataformak eta txikizkako merkataritzaren bidez bezeroak gure produktua erosi ahal izango dute.
- Entrega: Online erositako produktuak paketeria enpresen bidez bidaliko dira.
- Salmenta ondorengoa: Web orri propioa izango genuke, non erosleek postontzian iruzkinak utzi ahal izango dituzten, ondoren beren iritzia kontuan hartzeko etorkizuneko alaketeta posibleetarako, bezeroak ahalik eta pozik eta leialen mantentzeko.